

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Isladak.
Kauta.
Atxeh Records.
Iraupena: 37'52".
11 euro.

Emozioa eta intentsitatea ukitu garaikidearekin

ANDOAINGO HIRUKOTE HONEK dagoeneko eskarmentu handia dauka musika talde moduan; hori baino gehiago, jarraitzaile asko batzeaz gain, arriskatzeko eta aldatzeko pausoak ematea ere gustuko du. Hirukote bihurtu zirenetik oztopoei gogor egiten ikasi zuten eta ordutik ez dute inoiz atzera egin. Are gehiago, azken disko honetan musika ildoak dezente aldatu dute. Abesteko moduetan arriskatu,

eta hardcore melodikotik eta rock alternatibotik barrena emo-aren intentsitatea barreiatuz, ukitu metaleroak eta poperoak batzen jakin dute. Melodia eta intentsitateekin jolastu dute batez ere, iragane-ko abiadura eta indarra beste baterako utziz. Eraitza borobila lortzeko, gainera, Kataluniara jo dute Standstill, Delorean eta bestelakoekin lan egin duen Santi Garciak kantuak nahas zitzaiz.

Kauta

«Gauzak probatzea gustatzen zaigu, ez zaigu modu linealean soilik abestea gustatzen»

Abesteko tonalitate desberdinak hartu dituzue, eta nahiko arriskatu duzue...

Gauzak probatzea gustatzen zaigu, ez zaigu modu linealean soilik abestea gustatzen: ahots melodikoa, garrasiak edo faltseteak modu egokian erabilia guztiak batera joan daitezke kanta batean. Abesti berri hauetan koro asko sartu ditugu.

Zer sentitzen da diskoetxe berri bat estreinatzean?

Ilusioa. Diskoetxe batzuk begiratzeko egon ginen, *management*-a eramaten diguten Hontza Group lan taldeak aukera eman zigun arte diskoetxe berri bat izateko, Portu eta gure diskoa kalera tzen lehena. Aspalditik ezagutzen dugu elkar. "Ukaezina zaigu ahaztutzea". Zer ez duzue inoiz ahaztuko?

Lehen aldiz lokalean sartu, norberak bere instrumentua hartu eta

lehen akordeak jotzen hasi ginen eguna, Kauta sortu zen eguna.

Amaitu berri duzuen disko honetatik agertuko al da *Nostalgia*? Zer suposat du zuentzako disko hau egiteak (Katalunian grabatu, norabidea aldatu...)?

Argi dugu disko hau oso berezia izan dela, konposizio luzea egon da

jende berria... Inoiz ahaztuko ez dugun esperientzia izan da, eta urteak pasa ahala, nostalgiaz ikusiko dugula ziur gaude.

"Izenak ez du egiten izana". Zerk egiten du Kauta?

Pentsatzen eta sentitzen duguna musikaren bitartez adierazteak eta jendearenganaino helarazteak.

Rock alternatiboa, hardcore melodikoa, emo-a eta metalaren oinarriak... Estilo bakoitzetik onena hartzen saiatzen zarete? Are gehiago, gaur egungo estiloek eta etiketek kritikoetatik harago ez al dute galdu zentzua?

Musika asko entzuten dugu eta estilo anitzekoa; hardcore, metal edo rock bortitzenetik hasita pop edo akustikoak diren muskaraino. Horrek

abestietan eragina duela ikus daiteke, baita azken emaitzan ere, diskoak estilo ugariatik edaten baitu. ■



(bederatzi hilabete); ondoren, hila-bete Bartzelonara joan eta han grabatzen egon, leku berriak ezagutu,